

# DONAIXTI-IBARRE Beltxu

**Distantzia** | **Desnibela** | **Iraupena** | **Tipologia** | **Zedarriak**  
**17,9 km** | **980 m** | **7h00** | **Itzulia eta Joan-etorria** | **PR**

Larzabaleko herritik, joan D918 errepidetik, Donaixti-Ibarreraino. Herritik ateratzeko panela pasatu eta 200 m-ra, joan eskuinera errepide ttipi batetik, eta jarraitu "Uhauko ur sorgia" paneli. 1,6 km urrunago, joan eskuinera, betiere "Uhauko ur sorgia" paneli jarraituz eta segitu 2 km-tan, abiapuntuako aparkaleku tipiraino.

GPS datuak: **UTM : 660224 - 4780930 Lat/Long : 43,1641/-1,0290**

**A**rbailako mendigune sekretua Baxenabarre eta Xiberoko probintzien artean dago. Izpiritu kurioseko ibiltariei abantaila anitz eskaintzen dizkie. Gisu lurrak dituen mendigunea da eta espeleologian aritzeko egokia den erliebe karstikoagatik ezaguna da. Beltxuko tontorra mendigunearen iparraldean dago. Ibilbide hau preziatua da, askotarikoa delako eta ikuspegi ederra eskaintzen duelako, bereziki tontorrera igotzeko ahalegin berezia egiten dutenei.



### 1. ZATIA > Abiatzea errepidetik

UTM : 660224 - 4780930

Aparkalekutik atera, aparkalekura iristeko errepide beretik ibiliz. 850 m urrunago, joan ezkerrean, igotzen den errepide ttipi batetik. 500 m urrunago, patarra eztiagoa den lekuan, errepidea bide bilakatzen da. Jarraitu bidetik, 2 km inguru.

### 2. ZATIA > Oihaneke bidexka


UTM : 660462 - 4780062

Eskuineko bihurtune gaiztoa pasatu eta 200 m geroago, bidetik atera eta joan ezkerrean bidexka batetik. Hasieran bidexka ez da hain nabaria, eta gero oihanean gora doa. Oihanean patar zutean 500 m ibili ondoan, estali gabeko eremutik pasatu, iratzeleku batean. Pixka bat gorago, berriz oihanean sartu, eta eskuineko bihurtune baten ondotik oihanetik behin betiko atera. Uraska batera iritsi, eta, hor, bidexka bide zahar, harritsu eta deseroso bilakatzen da.

### 3. ZATIA > Bazkalekuetara iristea

UTM : 659710 - 4778817

Orduan, eskuinerantz jarraitu behar den beste bide batetik joan. Lepora iristeko, hondatua den Beltxuko olharen ondotik pasatu. Gero, patar belartsu batean gora joan.



### 4. ZATIA > Ordokia

UTM : 659581 - 4779252

Lepotik, segitu zuzen, puntan ikusten den errepidera iristeko. Beltxuko gailurra ere ikusten da, bere antenarekin. Errepide lautik jarraitu, ezkerrean jaitsi gabe.

### 5. ZATIA > Lahondoko Olha

UTM : 659299 - 4779447

Jarraitu errepideari, ezkerrean igoz. Errepideak Beltxuko gailurraren itzulia egiten du, iparraldeko isurialdetik. Ausartean joan-etorria egin dezakete, gailurreko ikuspegi ederraz gozatzeko. Errepidea hasi eta 1,6 km-ra, utzi Hoztako herri-raino jaisten den eskuineko errepidea, eta zuzen jarraitu Lahondoko olharaino. Errepide zati hau olhan bukatzen da.

### 6. ZATIA > Ordoki belartsu eta zabala

UTM : 657980 - 4778377

Biratu bat-batean ezkerrean, olhen azpitik pasatzeko. Gero, joan behereko aldean dagoen ibar handirantz. Zeharkatu ordoki zabal hori, eta joan puntan eta pixka bat eskuinera dagoen Ehulatzeke olhako leporantz.

### 7. ZATIA > Tontor-lerroa

UTM : 659630 - 4778271

Lepoan, bilatu bidexka ttipi eta gorde bat; hortik joan behar da, ezkerrean. Mendi mazelan ibili, Biduzeko iturburuaren ibarraren gainaldean.

Patar eztiaren gora joan, 998 m-ko gailurreraino. Eta gero jaitsi, 3. puntuko lepora iristeko.

### 8. ZATIA > Jaitsiera

UTM : 659581 - 4779252

Lepotik jaitsi, igoerako ibilbide bera segituz.

## INTERESGUNEAK

### ❖ Gisu-zuloak

Arbailako mendigunea kareharriz osatuta dago nagusiki. Urak asko aldatzen du kareharrira. Izan ere, arroka disolbagarria da. Horregatik daude harpeak edo zuloak. Leku honetan bertan, horren adibide bat duzu. Baina ez sartu inoiz zuloetan espeleologian aditua den pertsona baten laguntzarik gabe!  
 UTM : 660515 - 4780124

### ❖ Olhak

"Olha" hitzak hastapenean artzainendako gerizaleku xumea adierazten zuen. Gaur egun, olha bat mendiko etxola bat da, franko ongi berzitatua, eta artzainek udan baliatzen dutena. Olhak bazkalekuetan kokatuak dira, eta, hola, artzainei beren kabalen ondoan egoteko aukera ematen diete.  
 UTM : 659196 - 4779531

### ❖ Hezegunea

Hemen, hezegune ttipi bat aurkituko duzu, eta landare haragijale ttipi bat ikusten ahalko duzu: muki-belarra. Hostoen azalean duen substantzia itsaskor bati esker, harrapakinak (intsektu arras ttipiak) harrapatzen ditu. Intsektuak deskonposatu eta digeritzen ditu, eta horrek nitrogenoa berreskuratzeko aukera ematen dio. Izan ere, bere ingurunean hazkurri-substantzia hori eskas du.

UTM : 659248 - 4778295



### ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Abiapuntua piknikatzeko mahaiak  
 UTM : 660224 - 4780930

# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurrpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

### Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak  
- BAIGORRI  
Herriko Etxeko plaza  
+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 37 03 57

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	▲
Itzul eskuin	└┘	└┘	└┘	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗